

Merkataritza Zuzenbidetik datozkigun berriak

(News on Mercantile Law)

SAGASTI AURREKOETXEA, Josu J.

Merkataritza Zuzenbidean doktorea
Euskal Herriko Unibertsitatea
Agirre lehendakariaren etorbidea, 83
48015 Bilbo
dmpsauuj@bs.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 73-82]

M

erkataritza
Zuzenbideak berrikuntza eta aldaketa dezente izan ditu azken bolarik honetan, eta horien artean esanguratsuenak izan direnen berri ematen zaigu ondoren.

H

abida cuenta de las múltiples noticias que han llegado desde el Derecho Mercantil, a continuación se exponen las principales novedades y modificaciones resultantes en el periodo reciente en dicho dominio.

T

enant compte des multiples nouvelles qui sont arrivées concernant le Droit Commercial, nous exposons ci-dessous les principales nouveautés et modifications qui en résultent dans ce domaine récemment.



1. Trukerako letraren eredia. 2. Kooperatibei buruzko Estatu-arautegi berria. 3. Kirol-elkarte Anonimoen erregimen juridiko berria. 4. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioa eurora egokitzeko arautegia.

1. Trukerako letraren eredia

Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 1999ko ekainaren 30eko Aginduaren bitartez, trukerako letraren eredu berria onartu da¹. Agindu honek beronen *Karien Adierazpenean* adierazten duenez –nahiz eta aipamen hau testuan espresuki ez agertu–, trukerako letren jaulkipena, bai eta honi darizkion eraginak, irailaren 24ko 1/1993 Erret Legegintza Dekretuaren bitartez onarturiko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Legearen Testu Elkarbiduak arautzen ditu. Lege honen 37.1 artikulua, trukerako letra beronen zenbatesunari dagokion motako gai tinbratua² luzatu behar dela adierazten du. Bestalde, Zergaren Erregelamenduak, maiatzaren 29ko 828/1995 Erret Dekretuaren bitartez onarturikoak, bere 116.1 artikuluan, gai tinbratuak Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Agindu baten bitartez sortu eta aldaraziko direla ezartzen du.

Era berean, euroaren sartze edo ezarrerak –abenduarien 17ko 46/1998 Legeak arautua– beharrezkoa egiten du 1986ko apirilaren 11ko Aginduak onartu zuen eredia ordezkatu duen beste eredu berri bat onartzea. Horrela, eredu berriak, aurreko eredia teknikoki hobetzeaz gain, trukerako letra igortzen³ den moneta eta tinbrearen zenbatekoa, bai pezetetan, bai bere bestekoa eurotan, zehazteko erreserbatuak gunea du, espainiar moneta sistemaren unitate berriaren erabilpena merkataritzako trafikoan erraztu ahal izateko, zergaren ordaina eurotan ahalbideratuz.

Horrela, Aginduak, *lehenik*, aipaturiko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Legearen Testu Elkarbiduaren 37.1 artikuluan ezarritakoarekin batera, trukerako letraren testu eta eredia onartzen ditu, trukerako letrak luzatzeko gai tinbratu erabilgarrien zehaztapen teknikoak atxikiz.

Bigarrenik, Aginduak, Moneta eta Tinbre Fabrika Nazionala gai berrien egintzaz arduratuko dela adierazten du, gai tinbratu berriak 1999ko

urriaren 30ean eginak egonik eta banatuak izanik, horrela, Aginduaren indarrean sartze datatik erabili ahal izango direlarik (*Hirugarren araua*).

Zentzu honetan, *Azken Xedapenak*, beronen *lehen leerroaldean*, Agindua «Estatuko Buletin Ofizialean» argitaratetik bi hilabetera sartuko dela indarrean adierazten du; hau da, 1999ko irailaren 16an. Era berean, *bigarren leerroaldeak* ezartzen du 1986ko apirilaren 11ko Aginduan ezarritakoarekin bat egindako gaiak beren balioa mantenduko dutela, eta baren izakinak agortu arte erabili ahal izango direla, indarrean dagoen arautegian ezarritako eragin guztiak gordez.

Aginduaren edukia azaldu ondoren, berari buruzko kontsidero batzuk egin behar dira. Horrela, lehenik, indargabetua izan den arauak zuen justifikazioak ez bezala –hau da, trukerako letraren zerga-eredua uztaillaren 16ko Ganbio eta Txeke 19/1985 Legera egokitzea–, ez dirudi onartua izan den berriarenak finkapen handirik duenik. Honi buruz, Aginduaren *Karien Adierazpenak* azaltzen dituen argudioen artean serioa dirudien bakarra, “aurreko eredia teknikoki hobetzea” da. Bestalde, nahiz eta *Karien Adierazpena* hasieratik zabal aritu zerga-tratamenduz, honetan ez dago inolako karirik erreforma burutzeko, “tinbrearen zenbatekoa... zehazteko erreserbatuak gunea” ezartzea izan ezik, horrela “zergaren ordaina eurotan ahalbideratuz”, aipamen hau ere erabat argi egon gabe.

Bestalde, aipaturiko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Legearen Testu Elkarbiduaren 37.1 artikuluan eta Aginduaren *Karien Adierazpenean* ezarritakoari kalterik egiteke, hurrengo hau, halere, kontuan izan behar da: nahiz eta trukerako letraren jaulkipenak eredu ofizialean garrantzi handia izan, trukerako letra, trukerako letra izateko, uztaillaren 16ko Ganbio eta Txekeei buruzko 19/1985 Legearen 1. artikulua adierazten dituen esentziazko betebeharrak izango dituen agirian igortzea baino ez da eskatzen, artikulua honek, gainera, aipaturiko jaulkipenari darizkion eraginak ere oro har arautuz. Azken batean, egiten diren adierazpenekin, trukerako letren jaulkipenaren mamizko arazo eta zerga-arazoak bidegabeki nahasten dira, bien artean bereizi behar delarik.

Gaur egun, mamizko erregimenaren gain sartu gabe, zeina emantzat uste baiten, trukerako letraren eredia, berari dagozkion zerga-eraginetara mugatu edo bideratzen dela

1. EBO, 169 z., 1999ko uztaillaren 16koa; errakuntza-zuzenketa EBO, 239 z., 1999ko urriaren 6koa.

2. Gai tinbratua: Efecto timbrado.

3. Igorr(i): Librar.

IGORPEN LEKUA / LUGAR DE LIBRAMIENTO		MONETA / MONEDA	ZENBATEKOA / IMPORTE
IGORPEN DATA / FECHA DE LIBRAMIENTO		MUGAEGUNA / VENCIMIENTO	
KANBIO LETRA honen ordetz, adieraztako mugaegunean ordainduko diozu / Por esta LETRA DE CAMBIO pagará usted al vencimiento expresado			
honi / a _____ ondoko kopurua (idatziz) la cantidad de (importe en letra)			
Pertsona edo entitatea: Persona o entidad: Helbidea edo bulegoa: Dirección u oficina: Herria / Población:		ordainketa egoitza honetan: en el domicilio de pago siguiente: <small>BEZERAREN KONTU KODGA (BKK) / CÓDIGO CUENTA CLIENTE (CCC)</small> <small>Entitatea/Entidad Bulegoa/Oficina KDDC</small> <small>Kontu no./Num. de cuenta</small>	
ONARTZEN DUT / ACEPTO		IGORTZAILEA / LIBRADOR	
Klausulak / Cláusulas: IGORPENDUA / LIBRADO Izena / Nombre: Egoitza / Domicilio: Herria / Población: P.K. / C.P.: Probintzia / Provincia:		(Sinadura, izena eta egoitza) (Firma, nombre y domicilio)	
Data / Fecha			
(Sinadura) / (Firma)			

DE 30.001 PTA
A 60.000 PTA

AA 0008929

Ez erabili tarzte hau, inprimaketa magnetikoa egiteko baita / No utilizar este espacio por estar reservado para inscripción magnética

Ganbio letraren eredu berria.

adierazten da. Horrela, 1999ko ekainaren 30eko Aginduaren *lehen arauak*, aurreko 1986ko apirilaren 11ko Aginduak bezala, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Legearen Testu Elkarbiduaren *37.1 artikulura* bidaltzen du⁴. Honen ondorioz, hurrengo hau erabaki behar da: letra, trukerako letra izango dela zerga-agindua bete zein ez, baina agindu hau beteko ez balitz, zigor berezi eta gogorra ezartzen dela, hau da, agiriaren eraginkortasun betearazlea galtzea.

Bestalde, 1999ko ekainaren 30eko Aginduak ez dio erabat aurrekoaren bideari jarraitzen. Zentzu honetan, 1986ko apirilaren 11ko Aginduaren *bigarren artikulua* Ekonomia eta Ogasun ministroari gaitasuna edo kompetentzia ematen zion gai berrien egintzarako Moneta eta Tinbre Fabrika Nazionalari agindu zehatzak emateko⁵; Agindu berrian, aldiz, *bigarren arauak* adierazten duenez, Moneta eta Tinbre Fabrika Nazionala ere arduratuko da gai berrien egintzez, baina ez ministroaren aginduei jarraituz, baizik eta arau berriaren edukian ezarririk daudenei.

Era berean, eredu berriaren sortzearen zergati gisa, *Karien Adierazpenak* aipatzen duen euroaren sartze edo ezarrerak ere azterketa berezia behar du. Honela, *lehenik*, "trukerako letra igortzen den moneta zehazteko erreserbatuiko gunea" ezartzeari buruz esan beharra dago halako gunea jadanik badagoela, eta bikoiztuz,

legegileak adierazten dituen artean erabili nahi den monetarentzat. Bata, "zenbatekoari" erreserbatuiko tokia da eta, bestea, zenbatasunari jarraitzen dion gunea. Hauetan, Ganbio eta Txeke Legearen *1.2 artikulua* adierazten duena etzanarazi behar da ("zenbatasun zehaztua pezetetan edo kotizazio ofizialera onarturiko atzerritar moneta bihurtgarri"). Agindu berriak egin duen aldaketa hurrengo honetan datza: zenbatekoa adierazteko erabiltzen den gunea baino lehenago dagoen tokia, moneta mota izendatzeko gune berezia edo bihurtzean. Ondorioz, orain moneta "zenbatekoa" eta "zenbatekoa letraz" aipamenetatik baztertuz zehazten denez, horrek jadanik ez du aipamen horien gunean berragertu beharko.

Bigarrenik, "tinbrearen zenbatekoa, bai pezetetan, bai bere bestekoa eurotan, zehazteko erreserbatuiko gunea" sartzen dela adierazten da. Tinbrearen zenbatekoa pezetetan letran bertan inprimaturik, zehazturik dator eta, beraz, ez du beste gunerik behar, gai bakoitzaren tinbratzearen aldaketa askatasunez ahalbideratzeko nahia izatean salbu, zeina irudiezina baiten. Eurotan ezarritako tinbrearen zenbatekoarekin kontrakoa gertatzen da, kotizazio ofizialera onarturiko atzerritar moneta bihurtgarri kasuan bezala halako zehaztapenik behar ez den moduan, hura ere behar ez delako. Egoera honetan, nahikoa izango litzateke inprimakian agertzen diren pezetan bestekoa kalkulatzearekin,

4. *37.1 Artikulua*.- "Trukerako letrak berauen zenbatasunari dagokion motaren gai tinbratuan luzatuko dira nahi eta nahi ez. Letra zenbatasun gutxiagoko gai tinbratuan luzatzeak, agiri hauek, berauei legeek esleitzen dieten eraginkortasun betearazleaz gabetuko ditu".
 5. *Bigarrena*.- "Ekonomia eta Ogasun ministroak agindu zehatzak emango dizkio Moneta eta Tinbre Fabrika Nazionalari gai berrien egintzarako".

“**Arreta handia izan beharko da inork eurotan zergaren zenbatasuna baino kopuru txikiagorik ez ipintzeko, bestela eraginkortasun betearazlea galduko bailitzateke**”



ordainduko litzatekeen tinbrea hori izango litzatekeelako. Zerga eurotan ordaintzearen baliozkotasunak, zerga atzerritar monetan kitatzeak baino zailtasun gutxiago du, euroak etorkizunean izango duen ohiko moneta izaera kontuan harturik. Aldiz, gauza ezberdina izango da trukerako letrak eurotan finkaturiko zergarekin igortzea, ez bailuke zailtasunik sortaraziko, inprimaki ofizialak ordurako moneta horri buruzko aipamena jasoko balu. Hala eta guztiz ere, “tinbrearen zenbatekoa... eurotan zehazteko erresebatutako gunea” ezartzeak arazoak izango ditu, kontuan harturik inprimakian pezetetan agertzen dela. Edozein kasutan, ez da adierazten aipaturiko gunea non kokatzen den, nahiz eta, eskusioz eta tokiz, “epemugaren” eta “tinbrea pezetetan” laukitxoaren bitartean koadroztatu gabe dagoen gunea izango delakoaren ustea izan. Era berean, ordaindu diren euroak adierazi ondoren, adierazpen hau agiriak inprimaturik duen pezetetan ezarritako adierazpenaren gainetik nagusitzen dela uste beharko da. Hau dela eta, arreta handia izan beharko da inork eurotan zergaren zenbatekoa baino kopuru txikiagorik ez ipintzeko, bestela eraginkortasun bertearazlea galduko bailitzateke.

Azkenik, gai berrien egintza eta banaketa eta aurrekoen erabilerari buruz, arrazoizkoa izango litzateke beraien artean trukatzeko eskubidea onartzea, gaur egun, aurreko 1986ko apirilaren 11ko Aginduan ez bezala (*Bosgarren araua*, «in

fine»⁶), espresuki aitortzen ez dena. Hala eta guztiz ere, espero da kasua heldzekotan Ministerioak ez liokeela aipaturiko trukatzeari ukorik egingo.

2. Kooperatibei buruzko Estatu-arautegi berria

Uztailaren 16ko 27/1999 Legearen bitartez, Kooperatiben arau erregulatuak berriak onartu dira⁷. *Karien Adierazpenak* ezartzen duenez, “hau da, hain zuzen ere, Lege berriaren helburua: kooperatibatasunaren irudi historikoak haragitzen dituen baloreak —gizarte zibilaren erantzuna ekonomia-baldintza iraunkor eta berritzaileei— eta bazkide multzoaren azken helburua —ekonomia-errentagarritasuna eta beren enpresa-proiektuaren arrakasta— bateragarriak izatea eta oreka egokia gordetzea”.

Era berean, besteak beste, Espainiar Konstituzioaren 129.2 artikuluan agindua bete eta Europar Moneta Batasunean sartzeak dituen ekonomi- eta enpresa-desafioei aurre egin ahal izateko sortzen da arautegi berria. Honez gain, legegileari komenigarria iruditu zaio Elkarte Zuzenbidean elkarrekin europar jarraibideetara egokitzeko ezarri izan diren arauak berriak kooperatiba-legerian ere ezartzea. Horrela, arau berriak ezarri dira erreforman edo aldaketan elkarte-publizitateari, urteroko kontuen gordailuari, eraldaketa eta bat-egiteei, administrazio organoen gaitasun edo kompetentziei eta bazkideen eskubide eta obligazioei buruz.

Bestalde, Lege hau Autonomien Estatuaren eskakizunetara moldatzen da, aurreko Legeak (apirilaren 2ko Kooperatiben 3/1987 Lege Orokorrak) gai honi buruz izan zuen ekarpena kontuan hartuz. Horrela, autonomia erkidegoek kooperatiben gaiari buruz kompetentzia eskusiboa jasoz, asko eraldatu da Lege berriaren aplikazio esparrua; Konstituzio Auzitegiaren Doktrina hartuz, Legeak bi irizpide ezartzen ditu 2. artikuluan, beronen aplikazio esparrua finkatzeko. Lehenengoaren arabera, Legea, beren kooperatiba-jarduera autonomia erkidego ezberdinetan burutuko luketen Kooperatiba Elkartei aplikatuko litzateke, autonomia erkidegoetarikoa batean halako jarduera izaera printzipalaz burutzean salbu. Bigarrenaren arabera, Legea, beren kooperatiba jarduera batez ere Zeuta eta Melilla hirietan burutuko luketen Kooperatiba Elkartei aplikatuko litzateke. Beraz, Legearen aplikazio esparruaren helmena Estatu mailakoa izango da.

6. *Bosgarren araua*. - “Ekonomia eta Ogasun ministroak aurreko gaiak kentzeko eta, bere kasuan, eredu berrikoen ordez trukatzeko beharrezkoa litzatekeena xedatuko du”.

7. EBO, 170 z., 1999ko uztailaren 17koa.



“ Europar Moneta Batasunean sartzeak dituen ekonomi- eta enpresa-desafioei aurre egin ahal izateko sortzen da arautegi berria ”

Halaber, Legearen lehentasunezko helburua Kooperatibaren enpresa- sendarpena berrindartzea da, honetarako bere ekonomia- eta elkarte-erregimena zalutu behar izanik eta enpresa-finantzaketaren gaian berrikuntzak sartuz. Horrela, hurrengo hauek nabararaz daitezke, besteak beste: gobernu eta administrazio organoaren berrindarpena, edo partaidetasun berezien edo parte-harmen tituluen jaulkipenaren bitartez baliabide iraunkorren erakartze modalitate berrietarako sarrera gaitzea.

Egiturari dagokionez, Legea hiru Titulutan garatzen da. Horrela, *Lehenengo Tituluan*, Kooperatiba Elkartearen kontzeptu eta motak zehazten dira, beraien kopurua gutxitu egin delarik Irakaskuntza eta Hezkuntza Kooperatibak bateratzean, zeinen eraketa arautzen baiten. Honela, lehen mailako Kooperatiba eratzeke gutxienez hiru bazkide behar diren bitartean, bigarren mailakoa eratzeke nahikoak izango dira gutxienez bi (*8. artikulua*). Era berean, Kooperatiba Elkartearen eraketa, Kooperatiba pertsona-Elkartea denez, bazkide eragile guztiak notarioaren aurrean aldiberean azaltzearen bitartez burutuko da, Biltzarre eratzailea ezabatuz (*7. eta 10. artikulua*); honek guztiak bizkortu egingo du eraketa prozedura. Elkarte-organoen arauketari dagokionez, hau ere zalutu egin da, zeren eta Estatutuek organoen funtzionamenduaren irizpideak finkatzea ahalbideratzen dute, bai eta hamar bazkide baino gutxiago lituzketen Kooperatibetan Estatutuei administratzaile bakarra sortzeko ahalbidea eman ere (*passim* eta, bereziki, *19.*, “*in fine*”, *32.1*, *bigarren leerroaldea*, *36.1* eta *44.1 artikulua*).

Legeak, Kooperatibak hirugarrenekin ari daitezkeen kasu eta baldintzak ere mantentzen ditu, eragiketa hauen mugak gehituz (*4. artikulua*); era berean, aurreko Legeko “elkarkide” izenekoa ordeztzen duen bazkide laguntzaile kontzeptua garatzen du, beronen parte-hartze aukera edo

ahalbideak ere gehituz (*14. artikulua*). Esparru honetan jarraituz, Estatutuek horrela adieraziko balute eta onartze unean hala erabakiko balitz, iraupen mugatuko elkarte-loturak ezarri ahal izango dira, baldin eta bazkide hauen multzoa dagokion motako izaera mugagabeko bazkideen bostena baino handiagoa ez bada (*13.6 artikulua*).

Botu eskubideari dagokionez, bazkide bakoitzak botu bat izango duela adierazten duen printzipio edo oinarria ezartzen da (*26.1 artikulua*), baina, era berean, Estatutuek, nekazaritza-, lehorraren ustiakuntza komun-, zerbitzu-, itsaso- eta garraiolari-Kooperatibentzat eta, gainerakoetan, Kooperatibak, kontrolpean dituzten Elkarte edo erakunde publikoak liritekeen bazkideentzat baino ez, botu anitz goratua ezartzeko ahalbidea izatea onartzen da. Hala ere, bost elkarte-botu gainditu ezinaren mugapena ezartzen da (*26.2tik 7ra arteko artikulua*).

Bestalde, Kooperatiben ekonomia-gestioak «tekniko-kontabilitate» ikuspuntutik batzuetan izan dezakeen konplexutasunak, artekariak, baldin eta Estatutuek horrela adieraziko balute, Kooperatibaren Urteroko Kontuen zentsura obligaziotik salbuestera eraman du, eta halako Kontuak auditoriara meneratzera beharturik baleude (*39.1*, «*in fine*», eta *62. artikulua*).

Halaber, elkarte-kapitalera buruturiko bai obligaziozko bai borondatezko ekarpenen ondorioz interesak abonatzeko ahalbidea, emaitza positiboak egotera baldintzatzen da (*48. artikulua*). Era berean, elkarte-kapitalera buruturiko ekarpenen gaurkotze erregimena ere aldarazten da (*49. artikulua*). Honela, Kooperatiben Balantzea, Ohiko Zuzenbideko Elkarteentzat ezartzen diren hitz berdinetan eta etekin berdinez gaurkotu ahal izango da Biltzarre Orokorren akordioaren bitartez, Lege honetan gaurkotzearen ondoko gainbalioaren xedeari buruz ezarritakoari kalterik egiteke. Bestalde, bazkideari babes handiagoa ematen dion eta ate irekiko kooperatiba-printzipioa berrindartzen duen elkarte-ekarpenen ateraldi eskubidearen arauketa berria ezartzen da (*51. artikulua*). Helburu honekin, ezabatu egiten dira Kooperatiban jaitziera izandako bazkideari –jaitziera hau justifikatu gabeko borondatezko jaitziera edo kanporaketa gisa kalifikatzen zenean– egin ahal zekizkiokeen elkarte-kapitalari buruturiko obligaziozko ekarpenen ateraldiari buruzko kenketak, kasu batean baino ez delarik mantentzen ahalbide hori: bazkideak Kooperatiban sartzerakoan jaso zuen gutxieneko iraupen epealdia ez betetzeagatik justifikazio gabeko jaitziera kasuan. Era berean, berreskurapen epeak ezin izango ditu, jaitziera datatik hasita, bost urte gainditu. Bazkidearen heriotzaren kasuan, egintza sortzailetik urtebete gainditzen ez den epean egin beharko zaie kausahabienteei berreskurapena. Berreskuratzeke dauden kopuruak ez dira

gaurkotzeko gai izango, baina diruaren legezko interesa jasotzeko eskubidea emango dute, zeina urtero abonatu beharko baiten, berreskuratu beharko den kopuruaren gutxienez bostenarekin batera.

Kooperatibak finantza-baliabideak erakartzea ere erraztu egiten da, gutxienez bost urteko epemuga duten partaidetasun berezien jaulkipenaren bitartez, erabateko askatasunez eskualdatu ahal izango direla (53. artikulua). Esparru honetan, Kooperatibek, Biltzar Orokorren akordioen bitartez, obligazioak jaulkitzea ere onartzen da, beren erregimena aplikagarria den legerian ezarritakora egokituko delarik (54.1 artikulua). Era berean, parte-harmen tituluak jaulkitzeko ahalbidea ere kontuan hartzen da, zeintzuen saria Kooperatibaren emaitzen arabera ezarriko baiten (54.2 artikulua). Azkenik, partaidetasunezko kontuak ere kontratatu ahal izango dira, eta beren erregimena Merkataritza Kodeak ezarritakora lotuko da (54.3 artikulua).

Ekoizpenari dagokionez, Kooperatibak prozesu ekoizkorren fase ezberdinetan parte-hartzea pizten da, kooperatiba-emaitza gisa hurrengo hauek hartuz: jatorria, Kooperatibaren beraren jardueren prestaketa lanak edo osagarriak burutzen dituzten enpresetan izaten dituzten partaidetza edo inbertsioetan dutenak (57.3.a) artikulua). Bestalde, kooperatiba-emaitzak kooperatibaz kanpoko emaitzetatik bereiz kontabilizatzeak batzuetan dituen zailtasun eta gestio kostuak, Kooperatibari Estatutuaren desberdintzapen eza aukeratzeko ahalmena ematea aholkatu du (57.4 artikulua).

Mota honetako Elkarten kontabilitate diziplina, publikitatea eta agerikotasuna, azken merkataritza erreformaren ildoarekin bat, berrindarturik geratzen dira Urteroko Kontuen gordailua Kooperatiba Elkarten Erregistroan eskatzerakoan (61.4 artikulua).

Bestalde, ekonomia-laguntza erei dagokienez, Lege berriak sortzen duen «bat-egite berezi» mota nabararazi behar da. «Bat-egite berezi» hau hurrengo honetan datza: galaraziko lukeen legezko araurik ez legokeen bitartean, Kooperatiba Elkarteak edozein Elkarte Zibil edo Merkataritza Elkarte motarekin bat egin dezakeela. Bat-egite hauetan, Elkarte xurgatzailearen edo bat-egitearen ondorioz eratuko litzatekeen Elkartearen arautegi erregulatzailea aplikatuko da, baina akordioaren harmenari eta Kooperatiba parte-hartzaileen bazkide eta hartzekodunen eskubideen bermeei dagokienez, Kooperatiba Legearen 64. (bat-egite akordioa), 65. (bazkidearen banatze eskubidea)

eta 66. (hartzekodunen kontraktotasun eskubidea) artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da (67. artikulua, lehenengo eta bigarren leerroaldeak). Kapitulu berean, Kooperatiba Elkarte Elkarte Zibil edo Merkataritza Elkartearen eraldatzea arautzen da, eraldaketa honetarako haren disoluzioa eta berriaren sortzea beharrezkoa izan gabe; hau da, eraldaturiko erakundearen nortasun juridikoak ez du, eraldaketaren ondorioz, inolako eraginik izango (69.1, «in fine», artikulua).

Kooperatiba Elkarten ezaugarri bereziek beharrezkoa egin dute kooperatiba-taldearen arauketa (78. artikulua), gero eta gehiago osoturiko merkatuetan aritu behar diren desafioaren aurrean Elkarte mota honen enpresa-integrazioa bulkatzeko helburuarekin. Zentzu honetan, Lege honen eraginetara, kooperatiba-talde gisa hurrengo hau ulertuko da: edozein motako Kooperatiba Elkarte ezberdinez eta bilduriko Kooperatibentzat derrigorrez bete beharreko ahalmenak jarduten dituen edo agindu nahiz argitasunak ematen dituen taldearen buru den erakundeaz eraturiko multzoa, aipaturiko ahalmenen esparruan erabaki batasuna sortuz (78.1 artikulua). Agindu edo argitasunak gestio, administrazio edo gobernu esparru ezberdinetan eman daitezke (78.2 artikulua). Bestalde, erantzukizunari dagokionez, taldean sarturiko Kooperatiba Elkarteek zuzenean hirugarrenekin burutuko litzuketeen eragiketei jario liezaiekeen erantzukizuna ez da talderaino helduko, ezta hau osatzen duten gainerako Kooperatiba Elkarteetarako ere (78.6 artikulua). Halaber, «Nahasitako Kooperatiba»⁸ izeneko elkarte-irudi berria sortzen da, zeinen arauketan denbora berean edo batera biltzen baitiren kooperatiba-elkarte eta Merkataritza Elkarten elementu propioak (107. artikulua).

Azkenik, eragintza edo fase bat baino gehiago garatuko luketen Etxebizitza Kooperatiben kasuan, garrantzi berezia du berauetariko bakoitzaren ondare burujabeari emandako tratamenduak, bazkideen erantzukizuna gainerakoekin zuzenean mugatzea ahalbideratzen baitu (90. artikulua).

Legearen Bigarren Tituluan (Estatuko Administrazio Orokorren egintzaz), Kooperatiba Elkarten nahiz berauen ekonomia- eta ordezkaritza-integrazio egituren eragintza, eragingarritasuna eta garapena, interes orokorreko eginkizuntzat jotzen dira (108.1 artikulua). Era berean, Kooperatiba Elkarten Erregistroaren erakuntzak izan behar dituen printzipio edo oinarri orokorrak ezartzen dira (publizitatea, legezketotasuna, zilegiztapena, lehentasuna eta segidako traktua), inskripzioak

8. «Nahasitako Kooperatiba»: «Cooperativa Mixta».

egitate inskribagarrien baliokidetzaren eraginkortasunik izan gabe eta hura zehatza eta baliozkoa uste izanik (*111. artikulua*). Halaber, aipaturiko Erregistroaren garapena etorkizuneko erregelamendu izaerako arauari uzten zaio (berezi, *109. artikulua* eta *Lehenengo Azken Xedapena*).

Bestalde, ikuskaritza eta zigor-kompetentziek Lan eta Gizarte Arazoen Ministerioarenak izaten dira, zeinak Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzaren bitartez jardungo baituen, Ministerio Sail ezberdin bakoitzak dagozkion kompetentziekin bat egin litzakeen ikuskari funtzioei kalterik egiteke (*113. artikulua*).

Legearen *Hirugarren Tituluan (Kooperatiba-elkarkidetasunaz)*, Kooperatiba Elkartearen elkarkidetasun erak mantentzen dira (Batasunak, Federakuntzak eta Konfederakuntzak), Estatu-esparruan kooperatiba-mugimendua pizteko elkarketen sorrera erraztuz (*117. artikulutik 120. artikulura* arte, biak barne).

Gainerako xedapenen esparruan, hurrengo hauek, berezi, nabararaz daitezke. *Bigarren Xedapen Gehigarriaren* bitartez, Gizarte Ekonomia Bizkortzeko Kontseilua sortzen da gizarte ekonomiarekin loturiko jardueren aholkularitza eta kontsulta-organo gisa, Lan eta Gizarte Arazo Ministerioaren bitartez Estatu Administrazio Orokorrean sarturik, baina beronen hierarkia-egituraren parte hartu gabe. Aipaturiko Kontseilua hurrengo erakunde hauek osatuko dute: Estatu Administrazio Orokorreko, Autonomia Administrazioetako —hauek horrela eskatuko luketenean—, ordezkaritza gehieneko Erakunde Lokaletako Elkargoko, Kooperatiben Elkargoetako, Gizarte Aurreikuspen Elkarkidetasunetako, Lan Elkarteetako eta Estatuaren esparruan ordezkaritza gehieneko sektorearteko Elkargoko ordezkariek, eta gizarte ekonomia esparruan prestigio ezaguna luketen Lan eta Gizarte Arazo Ministerioak izendaturiko bost pertsonak.

Bestalde, bazkideen hartzekodun pertsonalek ez dute Kooperatiben ondasunekiko, ezta bazkideek elkarte-kapitalera egindako ekarpenei buruz ere, inolako eskubiderik izango, bahituezinak baitira. Hau guztia, hartzekodunak bazkidearen aurka egikari litzakeen berreskuratze, interes eta itzulkinen buruzko eskubideei kalterik egiteke (*Hirugarren Xedapen Gehigarria*). Kooperatibei ere Ordain Etendura eta Porrotari buruzko Legeria aplikatuko zaie (*Laugarren Xedapen Gehigarria*). Era berean, Kooperatibetan, Kontseilu errektore edo ahaldu, Helegite Komite eta bazkideen artean, kitapen epealdian barne, sor litezkeen besteritzi edo

eztabaidak, abenduaren 5eko 36/1998 Legeak arauturiko Zuzenbidezko Arbitrajera meneratu ahal izango dira; hala eta guztiz ere, tirabirek batez ere kooperatiba-oinarri edo printzipioei eragingo baliote, Ekitatezko Arbitrajea erabili ahal izango litzateke. Honez gain, elkarte-akordioen negozio- eta xedapenezko izaera kontuan izanik, ez eta biltzarre- edo errektore akordioen ihardespenera ere, ez dira arbitraje ahalbideetik bazterturik geratzen, baina, edozein kasutan, arbitroak ezin izango du, bere kasuan, aldean xedapen ahalmenetik kanpo dauden gaien gaineko aholkurik eman (*Hamargarren Xedapen Gehigarria*).

Lege honek foru-erregimenak ere errespetatzen ditu eta, zentzu honetan, gai honetan indarrean leudekeen arau eta konbenioetan ezarritako zerga-gaia indarrean leudekeen foru-erregimen zehatzei kalterik egiteke aplikatuko da (*Hamahirugarren Xedapen Gehigarria*).

Azkenik, Lege honek (*Lehen Xedapen Indargabetzailea*) beronen kontra egon daitezkeen arauak indargabetzen ditu eta, berezi, apirilaren 2ko Kooperatiben 3/1987 Lege Orokorra, bere Lehenengo Tituluko III. Kapituluaren ezarritakoa salbu, Lege berriaren *Lehenengo Azken Xedapenean* adierazten dena bete arte, hau da, Kooperatiba Elkartearen Erregistroaren Erregelamendua onartu arte, zeina Gobernuak, Lan eta Gizarte Arazoen ministroaren proposamenaz, Lege berriaren argitarapenetik sei hilabete gaingaituko ez litzakeen epean onartu beharko baituen. Era berean, urtarrilaren 22ko 84/1993 Erret Dekretuaren *Hirugarren Xedapen Gehigarria* ezarritakoaren arabera sorturiko Integrazio Kooperatibak ezereztatzen dira, Lege berriaren *Bigarren Xedapen Iragaitzean* adierazitakoari kalterik egiteke (*Bigarren Xedapen Indargabetzailea*).

3. Kirol-elkarte Anonimoen erregimen juridiko berria

Abenduaren 30eko Zerga, Administrazio eta Gizarte Mailako Neurrien 50/1998 Legearen *109. artikulua*, hasiera batean, idazketa berria eman zien urriaren 15eko Kirolaren 10/1990 Legearen arau batzuei eta, berezi, Kirol-elkarte Anonimoen erregimen juridikoa ezartzen zutenei. Beraz, aurreko honetan oinarriturik, uztailaren 16ko Kirol-elkarte Anonimoen buruzko 1251/1999 Erret Dekretuak Elkarte mota honen erregimen juridiko berria ezarri du⁹, zeina «Estatuko Buletin

9. EBO, 170 z., 1999ko uztailaren 17koa; errakuntza-zuzenketa EBO, 174 z., 1999ko uztailaren 22koa.

Ofizialean» argitaratuko litzatekeen dataren hurrengo egunean sartuko baiten indarrean (*Bigarren Azken Xedapena*).

Arautegi berriaren *Karien Adierazpenaren* arabera, burutu den legegintza-aldarazketak izan dituen oinarrizko helburuak hurrengo hauek izan dira; lehenik, Kirol-elkarte Anonimoen erregimen juridikoa elkarte-era hau hartzen duten gainerako erakundeen erregimen juridikora hurbiltzea, beren akzioak etorkizunean Balore Burtsetan kotizatzea ahalbideratuz, eta, bigarrenik eta batera, Elkarte hauen akzioduntza¹⁰ eta kontabilitateari buruz administrazio-kontrol sistema ezartzea, lehiaketaren garbitasuna zaindu eta interes publikoak eta inbertitzaile ahaltsuenak babestu ahal izateko.

Era berean, *Karien Adierazpenak* hurrengo hau ere azpimarratzen du: legegintza-teknikaren ikuspegitik, orain arte arau ezberdinetan bildurik egon den erregelamenduzko arauketa guztia (uztailaren 5eko 1084/1991 Erret Dekretua; martxoaren 24ko 449/1995 Erret Dekretua eta uztailaren 26ko 1846/1996 Erret Dekretua) testu bakarrean biltzea, honetarako gaikuntza-Legearen arauen hitzez hitzeko edukiaren transkribatze teknika erabiliz, haiek benetako erregelamenduzko garapen arauekin batera eramanik.

Funtsezko berrikuntzak II., III. eta IV. kapituluetan bildurik egon arren, beharrezkoa da Balore Burtsetan kotizatzeari buruzko aipamena egitea. Ahalbide hau *9. artikulua* eta *Hamargarren Xedapen Gehigarriak* arautzen dute eta, honela, 2002ko urtarrilaren 1etik eskatu ahal izango dute Kirol-elkarte Anonimoek beraien akzioen negoziaketa Balore Burtsetan onartzea. Onarpenak, Kirol-elkarte Anonimoak, Burtsan onarturiko balore erakunde jaulkitzaileei aplikatzen zaien Balore Merkatuko arautegira meneratzea darama batera (*9.1 artikulua*). Hala ere, arautegi berriak kotizatzeri onartua izateko betebeharrak ezartzen ditu eta, beraz, hurrengo Elkarte hauek baino ez dira onartuko: eskariaren aurretik Kirolaren Legean ezarritako obligazioak bete zituzketenak, eta Lege honen *76.6 artikulua* adierazten dituen arau-hausteetariko baten ondorioz zigortuak izan ez ziratekeenak (*9.2 artikulua*). Azkenik, beren akzioak Balore Burtsetariko batean kotizatze baimena zuketean Kirol-elkarte Anonimoei buruz, Balore Merkatuko Nazio Batzordeak eskatu ahal izango du beharrezkotzat jotzen dituen auditoria osagarriak burutzea, Kirolaren Legearen *26.3 artikuluan* ezarritako hitzetan (*9.3 artikulua*).

Erret Dekretuaren *Bigarren Kapitulan* «partaidetasun nabariak» arautzen dira, hauen erregimena beste ekonomia-sektore batzuetan

dagoena bezalakoa izanik (kreditu erakundeak, erakunde aseguratzaileak, Balore Burtsetan kotizatzen duten Elkarteak, eta abar). Honela, partaidetasun nabariaren kontzeptua eta lorpen, inorenganatzeta eta jakinarazpen erregimena zehazten da (*10. artikulutik 15. artikulura* arte, biak barne). Era berean, Kirol Kontseilu Nagusiari esleitzen zaizkion konpetentziak nabararaz daitezke, hauen artean, bereziki, akzio nominatiboan Liburu Erregistroa aztertze eta partaidetasun nabariak hauei dagozkien Erregistroan inskribatzeko konpetentziak azpimarratuz (*15.2 eta 18 artikulua*). Halaber, Hezkuntza eta Kultura ministroari partaidetasun nabariaren jakinarazpena garatzeko konpetentzia onartzen zaio (*Lehenengo Azken Xedapena*).

Arau berriaren *Hirugarren Kapitulan* («*Mugapenak akzioen lorpenari*»), Kirol-elkarte Anonimoaren kapitalaren botu eskubideen 100eko 25eko partaidetasuna edo handiagoa lortzeko alde aurretik izan behar den administrazio-baimenaren erregimena arautzen da (*16. artikulua*), beronen garapena Hezkuntza eta Kultura ministroak ezarriko lituzkeen arauetara bidaliz (*Lehenengo Azken Xedapena*). Era berean, debeku zehatzak ere finkatzen dira, pertsona fisiko edo juridiko berberak zuzenki edo zeharka bi Kirol-elkarte Anonimo edo gehiago kontrolatu edo beraiekiko eragin nabariz jardutea eragozteko objektutzat dutenak (*17. artikulua*).

Bestalde, kontabilitate- eta aldizkako informazio arauari buruzko xedapenek Elkarte hauen kontabilitatearen berezitasunak ezartzea dute helburutzat, kalterik egin gabe Ekonomia eta Ogasun ministroak Kontabilitate Plan Orokorreko egokitzapen arauak sortzeari eta, beste ekonomia-sektoreetan dauden obligazioen eran, Elkarteek Kirol Kontseilu Nagusiari bidali behar dioten urteroko eta seihileko informazioa arautzeari (*Laugarren Kapitula, Laugarren Xedapen Gehigarria eta Hirugarren Xedapen Iragaitza*).

Azkenik, arautegi berriak uztailaren 5eko Kirol-elkarte Anonimoen 1084/1991 Erret Dekretua indargabetzen du, arau honen Xedapen Iragaitzak izan ezik, indarrean iraungo baitute (*Indargabetze Xedapen Bakarra*).

4. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioa eurora egokitzeko arautegia¹¹

Moneta bakarraren (euroaren) sarrerak, lehenengo eta behin, Europar Batasunak sorturiko

10. Akzioduntza: Accionariado.

11. Urriaren 5eko 338/1999 Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioa eurora egokitzeko Zenbait Neurri ezartzen dira.



Euroak billeteetan.

legeria du arautegizat (Kontseiluaren 1103/97 z., ekainaren 17koa, Euroaren Sarrerarekiko Xedapen batzuei buruzko EKen¹² Erregelamendua, eta Kontseiluaren 974/98 z., maiatzaren 3koa, Euroaren Sarrerari buruzko EKen Erregelamendua). Zentzu honetan, nahiz eta aipaturiko xedapen bitzuek Kide Estatuetan zuzeneko aplikazioa izan, hala ere hauetariko gehienek beren barne arautegia europar legeria berrira egokitzea erabaki dute. Honela, Espainaren kasuan, bereziki, abenduaren 17ko Euroaren Sarrerari buruzko 46/1998 Legea eta abenduaren 17ko Euroaren Sarrerari buruzko Legearen 10/1998 Lege Organiko Osagarria ezarri dira. Honen guztiaren ondorioz, egokiera premiaren esparru honetan, Euskal Autonomia Erkidegoak arau ezberdinak sortu izan ditu¹³, arau berrien helburua, beren *Karien Adierazpenak* ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa moneta bakarraren sarrerara prestatu eta egokitzea izanik.

Horrela, 338/1999 Dekretuak kontzeptu ezberdinetan sailkaturiko atalen bitartez burutzen du egokitzapena. Lehengo eta behin, *Arauzko Xedapenei* dagokienez, hurrengo hau adierazten

da: 46/1998 Legearen *30. artikulua* ezartzen duenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak epealdi iragaitzean¹⁴ sor litzakeen lege proiektuetan eta arauzko xedapenetan azken adierazpen gisa erabilitako moneta zenbatekoek kontu-unitate bezala pezeta erabiliko luketenean, ondoren edo jarraian haien besteko zenbatekoa eurotan etzanarazi beharko dela, ohar honek halako xedapenak adierazten diren kontu-unitatea aldatu gabe (*1.1 artikulua*). Era berean, epealdi berebetean euroa kontu-unitate bezala erabiliko luketen lege proiektu eta arauzko xedapenek espresuki etzanarazi beharko dute horrela. Kasu honetan, eurotan ezarritako moneta zenbatekoekin bat haren besteko zenbatekoa pezetetan ezarri beharko da, bihurtze neurriaren arabera eta pezeta hurbilenera biribilduz (*1.2 artikulua*).

Bigarrenik, *administrazio egintzei* buruz, arauzko xedapenentzat ezarritako erregimen berdina finkatzen da, zenbait berezitasunez (*2.1 artikulua*). Bestalde, *kontratuen* erregimenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak epealdi iragaitzean eta izaera orokorraz burutuko lituzkeen kontratuak,

12. EK: Europar Komunitateak.

13. Abenduaren 15eko 372/1998 Dekretuaren bitartez, Euskal Zor Publiko Idatziaren Banakako Balio Nominatiboak ezabatzen dira, eta abenduaren 22ko 385/1998 Dekretuaren bitartez Euskal Zor Publikoa Eurotan Berrizendatzeko Erabidea erabaki eta ezartzen da.

14. Epealdi iragaitza, Dekretuaren Xedapen Gehigarriaren arabera eta haren eraginetara, 1999ko urtarrilaren 1etik 2001eko abenduaren 31ra arte, biak barne, diragan epealdia da.

bai eta beraien luzapenak, pezeta kontu-unitatean adierazi eta betearaziko dira (3.1 artikulua). Hala ere, norgehiagoka iragarpenean, kontratuaren adjudikazio erabakian eta hau formalduko litzatekeen agirian, pezetetan ezarritako zenbatekoaren jarraian, beronen bestekoa eurotan adieraziko da, bihurtze neurri eta biribiltze arauekin batera, banakako prezioak edo atalbanatuak izan salbu, kasu hauetan sei hamartar etzanaraziko baitira (3.2 artikulua). Edozein kasutan, kontratazio organoak berriazko administrazio klausula pleguan espresuki etzanaraziko du bai kontratuaren kontu-unitatea pezeta dela, bai lehiari kontu-unitate gisa euroa erabiltzeko ahalmena ematen zaiola. Azken kasu honetan, kontratuaren prestaera jokaera guztiek, baliokide eran, bai pezeta kontu-unitatean bai euro kontu-unitatean, adierazi beharko dituzte moneta zenbatekoak (3.3 artikulua). Behin kontratuaren kontu-unitatea zehaztu ondoren, haren betetzeari jario liezazkiokeen gainerako jokaeren moneta-zenbatekoak halako kontu-unitatean adierazi beharko dira (3.4 artikulua). Azkenik, iragaitzako epealdian edo honen aurretik buruturiko kontratuaren iraupena 2001eko abenduaren 31 baino aurreragora arte luzatuko balitz, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera euro kontu-unitatean adierazita daudela ulertuko da eta horrela betearaziko dira, dagokion moneta zenbatekoari bihurtze neurria eta, bere kasuan, biribiltze arauak aplikatuz (3.5 artikulua).

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren partaidetasuna luketen Merkataritza Elkartearen *elkarte-kapital zifraren berrizendapena* ere ezartzen da. Beraz, Elkarte Publiko izaera luketen erakundeek, Gobernuaren alde aurreko aginduzko baimenik gabe, beren elkarte-kapitalaren zifra eurotan berrizendatu ahal izango dute (4.1 artikulua). Aipaturiko berrizendapenaren ondorioz akzio edo partaidetasunaren ondoko balio nominalak hamartar bi baino gehiagoko zifra balu, hau 46/1998 Legearen 28. artikulua arabera biribilduko da (4.2 artikulua). Era berean, helburu bakar gisa akzio edo partaidetasunen balio nominalak biribiltzea lukeen kapital gehikuntza edo gutxipena Gobernuaren baimenik gabe burutu ahal izango da (4.3 artikulua). Bestalde, Elkartearen administrazio organoak edo, bere kasuan, Administrazioak Elkartearen litzuzkeen ordezkariak, Elkarte-kapital zifraren eta akzio edo partaidetasunen balio nominalaren berrizendapen oro Elkarteak menpekotasuna lukeen Sail edo Erakundeari, Ekonomia Kontrol Bulegoari eta Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari jakinarazi beharko diete. Eragin hauetara, eskrituraren aurkezpen idazpena burutu izan zatekeenetik hamabost

eguneko epean jakinarazi beharko da Merkataritza Erregistroan (4.4 artikulua). Azkenik, epealdi iragaitzean eratuko liratekeen Elkarte Publikoen elkarte-kapitala eurotan adieraziko da (4.5 artikulua).

Arautegi berriak *enpresa-kontabilitate erregimenari* buruzko xedapenak ere adierazten ditu. Honela, epealdi iragaitzean eta beren aurrekontuak pezeta kontu-unitatean onartzeari kalterik egiteke, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoen errektore-organoei eta Elkarte Publikoen administrazio-organoei, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren alde aurreko baimenaz, beren kontabilitatea eurotan eramatea erabaki ahal izango dute. Eurotan egindako kontabilizazioaren hasierak urte naturalarekin batera etorri behar du (5.1 eta 2 artikulua).

Bestalde, *zerga-izaera ez luketen ordainketa eta sarrerei* dagokienez, Ekonomia Kontrol Bulegoaren eta eragindako Sail eta Erakundearen alde aurreko txostenaz, epealdi iragaitzean eurotan egin daitezkeen zerga-izaera ez luketeen ordainketa eta sarrerak Finantza Zuzendaritzari adierazteko gaitasun edo ahalmena ematen zaio, ordainketa edo sarreraren kausa den tresna juridikoa adierazita dagoen kontu-unitatea kontuan izanik (6. artikulua).

Era berean, *zerga* esparruan, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, beren arauketa Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunei legokiekeen eta 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko¹⁵ liratekeen zergei dagokienez, eurotan onartu ahal izango ditu kitapen edo autokitapen ereduak, bai eta hauen erabileraren baldintza eta zirkunstantziak ere. Hau bete ondoren, subjektu pasiboak eurotan aitortzeko edo autokitatzeko aukera izango du. Kasu honetan, eurotan ezarritako ondoko azken saldoaren aldamenean, Administrazioak haren besteko zenbatekoa pezetetan etzanaraziko du, bihurtze neurriaren arabera eta pezeta hurbilenera biribilduz (8. artikulua).

Azkenik, Dekretua Euskal Herriko Buletin Ofizialean argitaraturiko egunaren biharamunean sartuko da indarrean (1999ko urriaren 23an) eta bere xedapenak 2001eko abenduaren 31ra arte izango dira aplikagarri (*Azken Xedapenak*).

15. Sor(tu): Devengar.